

JARDUERA FISIKOA ETA OSASUNA UDAL PROIEKTUA SUSTATZEKO ATARRABIAKO UDALAREN ETA OSASUN ETXEAREN ARTEKO ELKARLAN HITZARMENA

Alde batetik, Juan Carlos Cenoz jaunak, Osasun Etxeko Zuzendaria, 18.205.043-Z NAN zenbakiarekin,

Eta beste aldetik, Mikel Oteiza Iza jaunak, Atarrabia Udaleko Alkatea, 72.704.111-F NAN zenbakiarekin,

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa

Konstituzioak ezartzen duen moduan, botere publikoek heziketa fisikoa eta kirola sustatuko dute, aldi berean, udalen interesak asetzeko ekimenen autonomia onartzen delarik.

Bestalde, 7/85 legeak, apirilaren 2-koa, udal araubidearen oinarriak erregulatzen dituenak, udalen interes eta aginpideen esparruan, herri komunitatearen behar eta asmoak asetzeko beharrezkoak ikusten diren jardueren sustapen aukerak finkatzen ditu.

Bigarrena

Nafarroako administrazioaren 6/1990 Foru Dekretuak, uztailaren 2-koa, ezartzen duenez, Nafarroako udal entitateek beste erakunde, publiko zein pribatuekin elkarlanean aritu daitezke herri komunitatearen interes publikoen kudeaketan, zerbitzuen prestazio eta jardueren exekuziorako diru laguntzak emanez.

Hirugarrena

Nafarroako osasun zonifikazio 22/1985 Foru Dekretuak, abenduaren 13-koa, ezartzen duenez, oinarritzko eremua, dudarik gabe, lehenengo arretaren lurralde marko egokiena izango litzateke, bertan homogeneotasun, eskuragarritasun eta mugaketa baldintzak ezartzen eta sorospen aproposa posible direlarik, hala nola, osasunaren mantenimendu eta errehabilitazioa gauzatzeko jardueren programazio, exekuzio eta ebaluazioa.

Marko honetan, entitate sinatzaileen xedeak eta norbanakoaren osasuna lortzeko eta mantentzeko jarduera fisikoaren sartze eta etengabeko praktikak suposatzen duena kontutan hartuz, aldeek, hurrengo xedapenen bidez uztartzen duten hitzarmena proposatzen dute:

KLAUSULAK:

LEHENENGOA - XEDEA

-Hitzarmen honen helburua Atarrabiako bizilagunen eta osasun etxetik pasatzen diren pertsonen osasuna hobetzea izango da, jarduera fisikoaren praktika eta medikuak agindutako ariketa fisikoaren bidez.

-Horretarako, Jarduera fisiko eta osasun udal proiektua, hala nola, Nafarroako Zahartze aktibo eta osasungarria bultzatzeko estrategia aintzat hartuko dira, Nafarroako 2022-2025 Osasun Publikoko Plana, Nafarroako Osasunerako Jarduera eta Ariketa Fisikoaren Preskripzio Plana (2023), Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen jarraibide eta diru laguntzetan oinarriturik.

-Proiektu honen iraunkortasuna bermatzeko, herriak dituen baliabideen erabilpen eraginkorra lortu, osasun publiko sarearekin lotuz.

-Ariketa fisiko eta osasun programen itsaspenaren areagotzea.

BIGARRENA - HITZARMENAREN IRAUNALDIA

Hitzarmenaren eragina, honen sinaduraren ostekoa izango da, 2026 urte osoaren zehar iraungo duena. Hitzarmenak urte bateko iraupena izango du eta automatikoki berriztatuko da, aldeetako batek, urte bereko urriaren 31a baino lehen, kontrakoa salatzen ez baldin badu.

HIRUGARRENA – ATARRABIako OSASUN ETXEAREN ARDURAK

Atarrabiako osasun etxeko langileek hartzen dituzten konpromisoak:

Pertsona osasuntsuen kasuan:

- Pazienteen jarduera fisikoaren praktika, historial medikuan erregistratu.
- Jarduera fisikoaren praktika aholkatu, udal kirol zerbitzuen kontaktua erraztuz.

Arriskuko edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen kasuan:

Ariketa fisikoa aginduko da, pazienteen osasuna hobetzeko tratamendu bezala. Agindu hau "ARIKETA FISIKO ERREZETA" ekintzaren bidez burutuko da. Ariketa fisikoaren errezeta

honetan Mendekotasuna duten Pertsonen Arretarako Programa ere sartzen da, ADACENekin lankidetzan.

Nerabe sedentarioen kasuan:

14 eta 17 urte bitartekoentzat "MUGITU-INDARTU" jarduerara edo 12 eta 13 urte bitartekoentzat "GAZTE ACTIVA MULTIACTIVIDAD" jarduerara joatea gomendatuko zaie, jarduera berri horren helburua da sedentarioko gazteak osasunera bideratutako ariketa fisikoa egiten hastea.

LAUGARRENA – ATARRABIAKO UDALAREN ARDURAK

Atarrabiako Udalak, Kirol Zerbitzuaren bidez hartzen dituen konpromisoak:

- Kirol Zientzietan lizentziatu edo graduatuekin batera, ariketa fisikoko programak diseinatzea eta antolatzea, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen ezaugarri fisikoetara egokituak, "ariketa fisikoko errezetarekin preskribatuak", baita nerabe sedentarioentzako ariketa fisikoko programak diseinatzea eta antolatzea ere.
- Pazienteen jarraipena egin, hauek ariketa fisiko programarekiko hartutako ohitura balioetsiz.
- Publizitate euskarri egokiak sortu, programaren difusioa herrian zehar ahalbidetuko duena.

Atarrabian, 2026ko, Uztailaren 28an

Atarrabiako Udalak



JUAN CARLOS CENOT OSINAGA

Atarrabiako Osasun Etxeak